

K...eta
Kitto!

2019-IV-26 1097 zkia.



Argazki munduan murgiltzeko hilabetea

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



Nahi bezain urrun
iristeko aukera
www.aldatze.eus

K



ALDATZE

Col. Sta. M^a de la Providencia
ALDATZE Ikastexea
Aldatze kalea, 5 20600 EIBAR
Tfnoa. 943 70 11 50 www.aldatze.eus

AURREMATRIKULA



aldatze
haur-eskola

American High
School Diploma
www.academica.school



aldatze
batxilergoa



Informaticando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA. EIBAR ETA ELGOIBARREN.

TABERNETAN



ZINEMETAN

ZUREIRAGARKIA

30
PANTAILA

KARTELERIA
DIGITALA

HARATEGIETAN

OKINDEGIETAN



HARREMANETAN JARTZEKO

WWW.INFORMATICANDO.EUS

943 15 06 22



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzio@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Oscar Manso

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Domekan, apirilaren 28an, izango dira Espainiako Gorteetarako **hauteskundeak**. Oraingoan ez dugu paperezko argitalpen berezia aterako, baina, hala ere, ...eta kitto!-ko lantaldeak lanean jardungo du Eibarko emaitzak jakin bezain laster **www.etakitto.eus** webgunean argiratatzeko. Herriko emaitzen gorabeherak Facebook (@etakittoaldizkaria) eta Twitter (@etakitto) bitartez ere jarraitu ahal izango dituzue.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIN.- Mihia, ahoan dagoena. *"Ondo egiña, sutan badot miña".*

MIN LUZE.- Ixilik egoten ez dakiena. Gaztelerazko *'charlatán', 'chismoso'*. *"Haregaz min luziaz berba egin dozu? Akabo! bixar mundu guztiak jakingo dau".*

astean esanak

"2000ko urrian: 'Alvarez Cascos Espainiako ministroak esan du euskal Y grekoa 2010ean amaituko dela'. 2009ko uztailian: 'Euskal Gobernuo Garriao kontseilariak lanak 2015 edo 2016an amaituko direla dio'. 2015eko urtarrilean: 'Sustapen Ministeritzak Y grekoa 2019an ipiniko dela zerbitzuan esan du'. 2019ko apirilean: 'Eusko Jaurlaritzak 2024ra arte luzatu du abiadura handiko trenaren abian jartzeko epea'. Enigma bihurtu den trenaren noiz jarriko den martxan jakitea zulo beltzera garamatza, tuneletik ihesi, abiadura handian"

(MIKEL GURPEGI, ZUTABEGILEA)

"Funtsean, zurrumurruek funtzionatzen dute jendeak hori sinestu nahi duelako, eta arrazoia ematen diolako. Kontra egiteko, muin semantikora jo behar da. Zer dago azpian? Gasteizen Marotok zabalduko arekin, bertakoen beldurra eta kanpokoek agortuko duten laguntzetarako dagoen dirua. Baina ezetzatze hutsak, berez, zabalpen handiagoa ematen dio albiste faltsu bati. Beste erantzun mota bat behar da. Edozein albiste faltsu sinestuko dugu, baldin eta gure alde jokatzeko badu: horretan oinarritzen da gaur egun estrategia komertzialaren gehiengo, eta horri gizarite harremanak deitzen diote"

(FITO RODRIGUEZ, IDAZLEA)

"Gaztetxo bat hurbildu zitzaidan sakelakoa eskuan, eta beste bat, eta beste bat ere arriatu zen. Parisko Notre Dame katedrala ageri zen sutan sakelakoaren pantailan. Onintza Enbeitak baietz esan zien, zerbait entzun zuela irratiz. Gero, azti, azkar-usteko, segituan etorri nintzen nire onera. Bideo montaje baten itxura osoa zuten irudiek, haurrak Iparraldekoak ziren eta Notre Dameren hautua ez zen kasualitatez egina; Onintza adarjotzaile fina da; nik ez dut sakelakorik eta haiek badakite ez dudala... Zirria sartu nahiko zidaten gero afalondoa sutearen inguruko gairen bat ipini eta hanka sar nezan. Ez zen horrelakorik izan!"

(ANDONI EGAÑA, BERTSOLARIA)


1.750 kilo lenteja jaso dira Eibarren errefuxiatuendako

Eibartarrak primerako erantzuna emon detse Lesbosen (Grezia) dagozen errefuxiatuendako janarixa biltzeko deixari, eta 1.750 kilo lenteja jaso dira Eibarren. Horrekin batera, Ermuan beste hurrenbeste kilo arroz biltzia lortu dabe. Ekimena bultzatu dabenen eritziz, “kanpainia arrakastatsua” izan da eta herritarren, alkartien eta erakundien eskuzabaltasuna agerixan geratu da. Izan be, antolazailiak 1.000 kilo lenteja jasotzeko helburua ezarri eben eta aurreikuspen guztiak gaintzia lortu dau jendiak. Gaiñera, konpresak, ojalak eta zapi umelak be jaso dira. Bildutako guztiak Zaporeak alkartieren bittartez bialduko dira Lesbosera.



Gerra ostian herriko taillarren berreraikuntzari buruzko erakusketia

Atzo inaugurau eben Eibarko Armagintzaren Museuan “Eibarko industria-sarearen berreraikuntza 1938-1942” izeneko erakusketia. 1937ko bonbardaketen ondorengo industria-sare eibartarraren berreraikuntzari buruzko erakusketia da. Izan be, bonbardaketiak Eibar erabat suntsitu eban, baiña handik hillebete batzuetara, 1938xan, taillar eta fabrika asko berreraikitzen hasitta eguazen, herrixak ahalik eta azkarren bere ekoizpen-ahalmena berreskuratzeke asmuarekin. 1938-1942 urtiak iraganaren eta geruaren arteko mugarrixa ezarri eben Eibarko arkitekturan eta hirigintzan. Erakusketia preparau dabena diñuen, “Gerra Zibillaren ondoren Eibarren eraikitako industria ar-



kitekturia ongi bereizten da arkitektura zibilletik. Industria-arkitekturak, enpresaren premiñeri erantzutiaz gain, modernidadia erakusten dau. Enpresa mordua eguazen, eta erabilleria-nahasketia —enpresak eta etxebizitzak bata bestiarene aldamenian eta sarritan bixak eraikin berian baita be— herrixaren identidade ikurra zan. Enpresen egokitzeko ahalmena eraikiñetara be aillegatzen da, taillarrak espazio barrixak billatu bihar dittue-eta”. Erakusketa honetan 1938 eta 1942 urtien inguruan egin ziran eraikin industrial esanguratsuenak bildu dittue. Raimundo Alberdi y Abaunz arkitektuak diseñatu zittuen eraikin horretako gehixenak. Sarrerria duan da eta ekaiñaren 2ra arte egongo da zabalik.



EH Bilduk zerrendia aurkeztu dau

Oin dala egun batzuk aurkeztu eban zerrenda osua Eibarko EH Bilduk. Azaldu ebenez, zerrendia osatzerakuan “hiru ardatz garrantzitsu” zaindu dittue. Batetik, zerrendiak jarraikortasuna izatia eta, horregaittik, “hor dagoz atzera be Igone Lamarain, Anafran Astigarraga, Iñaki Penedo edo Gorka Errasti bera. Legegintzaldi batetik hurrengora jarraikortasuna egotia oso inportantia da EH Bildurendako. Bestalde, esperientziak be garrantzixadaka. Horretarako, pentsiodunen lan eta bizitza esperientziak baliatzeko, pentsiodunak toki esanguratsua dake EH Bilduren lantaldian. Amaitzeko, oso garrantzixua da freskotasuna, kide gaziak. Hamendik aurrera Eibarko gaziak Udalian benetako erreferentzia bat izango dabela pentsatzen dogu”.



Malen Jainaga

Bigarren Errepublikaren aldarrikapen eguna gogoratu zan

Urtero lez, aurten be II. Errepublikaren aldarrikapena gogoratu zan Eibarren apirillaren 14an, hain zuzen be egun historikuaren 88. urteurrenien. Eibarko sozialistak Untzagako Casa del Puebloko balkoian banderia igo eta, jarraixan, Txaltxa Zelaixan egin eben ekitaldixa, txapligu eta guzti. Eta goizian Ermutik abiatu zan XIX. Martxa Errepublikarra Untzagara aillegau eta, jarraixan, Untzagan banderia igo eben. Eta handik Astelena frontoira jua ziran, Pablo Iglesias Podemosen buruak eta Alberto Garzon Ezker Batua alderdiko koordinadoriak, Eibarko Elkarrekin Podemosen hautagaixekin eta erkidego maillako buruekin batera egindako ekitaldira.



Malen Jainaga

autuan

"GURE HERRIA" ETA "AMAÑA HAUZOA" DIGITALIZATUTA

Ego Ibarra batzordiak Gure Herria auzo-alkartiak 70ko hamarkadan argitaratutako 'Gure Herria' eta 'Amaña Hauzoa' aldizkarixen ale batzuk digitalizatu ditu eta egoibarra.eus webgunian jarri ditu guztion eskura. 1976, 1977, 1978 eta 1981 urtekuak dira digitalizatutako aliak.



UDAL ARTXIBUA YOUTUBEN

Udal Artxibua kanala zabaldu dau YouTuben, herriko irudixak zabaldu eta eskuragarri jartzeko. Jorge Oteizak Eibarrera egindako bisitta, Juan San Martin herriko seme kuttuna izendatzeko ekitaldixa, Udaletxiaren azken obrak eta Eibarko historixaren beste gertakari batzuk dagoz ikusgai.



tel. 943 899 316
013431aa@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI

BATXILERGO ARTISTIKO-MUSIKALA Elgoibar Institutuan

2019-2020 ikasturterako
AURREMATRIKULA epea:
maiatzaren 2tik 14ra

ATE IREKIAK

maiatzaren 2an, 18:30ean
Institutuko aretoan (Meka eraikina)

'Shok', 'Aski' eta 'Rosk' graffiteruak identifikatu ditu Udaltzainguk

Aurreko asteko eguazten eta eguen gabetan, udaltzaïñak Eibar eta inguruan jarduten dabena lau graffitero identifikatu zituan hormak margotzera zoiazenean. Udaltzainguen esku-hartzia bi tokittan, Legarren eta Iturburun, gertatu zan. Ezustian harpatu zittuen bi graffiterok 'Shok' izena erabiltzen dabe euren pintadak siñatzeko, eta beste bixen gatxizenak 'Aski' eta 'Rosk' dira. Graffiteruak identifikatu eta gero, guztieri materixala konfiskatu zetsen: aerosolak, pintura potiak eta rodilluak. Udaltzainguk lau graffiteruen kontrako izapidiak hasi ditu, ustez legia haustia-gaittik zigor-prozedimendua martxan jarri ahal izateko. Horrelakueri espedientia zabaldu ahal izateko, biharrezkua da "in fraganti" harpatzia eta, esandakuaren arabera, "horretan datza, hain zuzen be, aurreko asteko operaziñuaren garrantzixa". Udaletik azaldu dabenez, "gure kalietan ugaritzen ari diran pintada eta graffitiaren aurrian, Udaletik eta Udaltzaingotik biharrian dihar-



dugu zigor-neurri efektibuaguak ezarri ahal izateko. Ikusi dogunez, zigor ekonomikuak ez dira nahikuak eta, horregaittik, neurri gogorraguak aplikatzen hasi gara". Bixen bittartian, udal brigadak herriko pintada eta graffitiak garbittuko dittuela adierazi dabe.

Greba eskubidia urratu dabela salatu dabe Probaderoko grebalarixak



Lan Ikuskaritzara jo dabe Eibarko Probaderoko grebalarixak, grebarako oiñarrizko eskubidia urratzen diharduela salatuz. Izan be, eurak pentsatzen dabenez, beraien lana egitten dabena bihargiña egunero dihardu biharrian. Salaketaren harira, apirillaren 12xan enpresako zuzendaritza eta bihargiñak alkartu zittuan. Grebalarixak salatu dabenez, "zuzendaritza Greba Komitearen eginbiharreko egiaztapenak behin eta berriz oztopatzen ari da. Ez eban greba komiteak eskatutako informaziñorik eruan eta zalantzan ipiñi eban talde honek dakan funziño legala". Arma probaderoko bihargin guztiak bat izan ezik martxuaren 21etik dagoz greban eta, horretarako arrazoia, "hauteskunde sindikalak egin eta antolatuzeko asmua erakutsi genduanian enpresak bi lagun kaleratu zittuala da". Bihargiñak argi azaldu dabe ez dabela askatasun sindikalaren kontrako ekintzarik onartuko eta kaleratutako bi lankidiak biharrera bueltatu arte greban segiduko dabela.

Javier Nuñez izango da PP alderdiko hautagaixa



Aste honetan aditzera emon dabenez, maiatzaren 26xan egingo diran Udal Hauteskundietarako PP alderdixak aurkeztuko dabena alkategaixa Javier Nuñez izango da. 46 urteko eibartarra ezkondu dago, administratibua da eta oin dala lau urte be bera izan zan alkategaixa. Udalian ordekaritza izateko nahikua boto lortu ez bazittuan be, lau urte honetan Eibarko PP-ko koordinaziñuarekin arduratu da eta hainbat ekimen abiatu ditu.

Gaur hasiko dira Eibarko Libre Eguneko ekitaldixak

Gaur arratsaldian, 19:00etan zabalduko dabe Kultun Eibarko Komite Antinuklearraren erakusketia, orduan sasoiko argazki eta materixalarekin. Ordu laurden geruago, hitzaldixa hasiko da Eibarko Komite Antinuklearrako kide izandakuen eskutik. Eta bixar arratsaldian, 16:30xetan G7 Ez plataformak emongo dabe hitzaldixa Kultun. Ondoren, 19:00etan, Untzagatik poteua hasiko dabe, Aldats elektrotxaranga-kuak musikarekin lagunduta. Eta gabeko 22:00etan kontzertuak hasiko dira Gazte-txian, Itziarren Semeak, Bad Sound eta Sista Kata taldiekin (5 euro).





Zabaldu dabe Errekatxu eta Arane arteko bidia

Aurreko astian zabaldu eben Arane eta Errekatxu arteko errepidea, baita oiñezkuendako bidia. Urtarrillian luperixia gertatu zan, eurixak eraginda, eta harrezkero errepidea itxitta egon da, jausittako lurra garbittu eta mendi-magala egonkortzeko biharrak amaittu arte. Biharrak martxuaren erdialdian hasi zittuen eta hillebetez jardun dabe biharrian.

Eskualdeko 2.000 lagun baiño gehixagok eskatu zittuen pensiño duiñak kalian

Apirillaren 13an, eguardixan Untzagatik abiatu zan manifestaziño jendetsuan, Debabarreneko jubilau eta pentsiodunak kalera urten ziran pensiño duiñak eskatzera. Oin artekuari jarraituta, 2011. eta 2013. urtietako lan erreformak indargabetzia, jasangarritasun faktoria bertan behera lagatzia, andrak gizonekin parekatzia, pensiñuen blindaje konstituzionala, KPIa aplikatzia eta gitxieneko pensiñua 1.080 eurokoa izatia eskatu eben Debabarreneko Jubilau eta Pentsiodunen Plataformak deittuta egin zan manifestaziñuan.



asteko
%37
 datua

dira Debabarrenean berrikuntzaren alde egitten daben enpresak, Eustatek kaleratu dittuan datuen arabera. Debagoiena da ehuneko altuena dakan eskualdia EAEn, %46.



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- | | |
|--------------------------|-----------------------------|
| 1) Kardiologia | 9) Barne Medikuntza |
| 2) Zirugia | 10) Radiologia |
| 3) Dermatologia | 11) Urologia |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 12) Traumatologia |
| 5) Análisi Klinikoak | 13) Koloproktologia |
| 6) Ortodontzia | 14) Erizaintza |
| 7) Otorrinolaringologia | 15) Foto-depilazio Unitatea |
| 8) Psikiatria | 16) Psikologia |



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
 Taldea

GRUPO
funeuskadi

21 Korrika Eibarren



1



2



3



8



9



10



15



16



17



22



23



24



29



30



31



36



37



38

- 1- AEK
- 2- El Corte Ingles
- 3- Codesyntax
- 4- Kirol taldea
- 5- Ego-Gain Borroka Antolakuntza
- 6- Hanka Motxak Bertso Eskola
- 7- Euskara Batzordea
- 8- Gazte Mugimendua
- 9- ...eta kitto!
- 10- Eibar BHI
- 11- Eibar BHI Gurasoak
- 12- Eibar Rugby Taldea
- 13- Akebai
- 14- Euskadiko Kutxa
- 15- Astixa
- 16- Arrate Kultur Elkarte
- 17- PSOE
- 18- PNV
- 19- EGI
- 20- Podemos Ahal Dugu
- 21- EH Bildu
- 22- Etxerat
- 23- Mirentxin
- 24- Iosu, Pana, Arrate, Anjel eta Patxiren lagunak
- 25- LAB
- 26- J.A. Mogel
- 27- San Andres eskola
- 28- Eskola Publikoko gurasoak
- 29- Eskola Publikoko gurasoak
- 30- Eskola Publikoko gurasoak
- 31- Dendarien Elkarte
- 32- Eibar K.E.
- 33- Klub Deportiboa
- 34- Euskal Bizikleta Kirol Elkarte
- 35- Sostoa abesbatza
- 36- Aspe
- 37- Gure Esku Dago
- 38- Legarreko Jai Batzordea
- 39- Udaleko langileak
- 40- Amañako Jai Batzordea
- 41- Armeria Eskola
- 42- Uni Eibar-Ermua



4



5



6



7



11



12



13



14



18



19



20



21



25



26



27



28



32



33



34



35



39




40



41



42



BAKARNE ELEJALDE. "Maiteminduta".

Pertsonak eta bizitza izango dira lehenak M1ean

Gaur egun nagusi den eredu kapitalistari aurre eginez, **ELA** sindikatuak bizitza bera jarri nahi izan du erdigunean Maiatzaren Lehenean. Horregatik aukeratu du "Bizitza da lehena. Nuestras vidas frente al capital" goiburua. Diotenez, "erabat kontrajarriak diren kontzeptuak dira kapitala eta bizitza, eta bigarrenaren alde egin beharra dago lehenari aurre egiteko". Azken urteetan bezala, ELAk Bilbon eta Iruñean ospatuko du Maiatzaren Lehena. Bilbon hitzordua 11:45tan da, Jesusen Bihotzean; Iruñean, berriz, 12:00etan, Gurutze Enparantzan. Hiriburu bietan egingo diren manifestazioen ostean bazkariak egingo dira eta bertara joateko txartelak salgai daude ELAren egoitza guztietan.

Garbiñe Aranburu **LAB** sindikatuko idazkari nagusiak eta Maider Jauregi Komunikazio idazkariak Bilbon aurkeztu zituzten Maiatzaren Leheneko mobilizazioak. "Euskal Herria decide. Kapitala hautsi, bizitzari eutsi" goiburuari jarraituta egingo diren mobilizazioetan "gazteak, pentsiodunak, lan gatazketan borrokan ari diren langileak, migranteak eta feministak oso presente" izango dituztela azaldu zuten. Euren berbetan, "kapitala eta bizitzaren arteko gatazkan, bizitzaren alde egiten dugu,

eta, horretarako, Euskal Herriak erabaki egin behar du". Deialdi bikoitza egin dute aurten: "Ipar Euskal Herrian, Baionan mobilizazio gara eta Hego Euskal Herrian, berriz, Iruñean, egun osoko egitarauarekin. Mobilizazio nagusia 12:00etan izango da, Gaztelu plazatik abiatuta". Sindikatuak Iruñera joateko autobusa antolatu du eta izena emateko tokiak hauek dira: Buenos Aires taberna (Eibar), Maxi (Deba), Jai Alai (Elgoibar) eta Arrano (Soraluze). Horrez gain, LABeko Eibarko egoitzara telefonoz deituta (943-820489) ere eman daiteke izena. Ordutegia, berriz, hau da: 08:50 (Deban, autobus geltokian), 09:10 (Elgoibarren, Txantxakuan), 09:20 (Eibarren, Ego-gainen) eta 09:30 (Soraluzen, estaziñoan). Bueltakoa 18:00etan irtengo da Iruñeatik.

Eta **UGT** eta **CC.OO.** Euskadiko Langile Komizioak sindikatuek ere beste edozeren gainetik pertsonen garrantzia azpimarratu nahi izan dute, "Pertsonak aurretik. Primero las Personas" goiburuak argi erakusten duen bezala. Horrekin batera, eskubide, berdintasun eta kohesio gehiago eskatzen dituzte. EAEko hiru hiriburuetan egingo dituzte manifestazioak: Bilbon, 11:30ean, Jesusen Bihotzetik abiatuta; Gasteizen, 12:00etan, Ama Zuriaren plazatik abiatuta; eta Donostian, 12:00etan, Alderdi Ederretik, hasita.

Sindikatuak Langileen Egunerako deitu dituzten mobilizazioak domekan gogoratuko den Lan Osasunaren Eguna igaro eta jarraian egingo dira, baina apirilaren 28aren harira hainbat salaketa egin dituzte egunotan. Euskadiko Langile Komizioetako Loli Garcia 2019an lan istripuetan 11 lagun hiltzea "izugarria" dela esan du, "prekarietateak hil egiten duela" azpimarratzeaz gain, "are gehiago Euskadin egiten diren kontratuen %60 hilebete baino gutxiagoko iraupena dutela eta istripu gehienak epe horren barruan gertatzen direla jakinda". Eta LABen arabera, "2018. urtean, Hego Euskal Herrian, 105.127 lan istripu gertatu ziren, 288 eguneko; horietatik 283 larriak izan ziren eta 67 hilgarriak. Azken bost urteetan, 268 langile hil dira lan istripuen ondorioz. Datuak eskandalagarriak dira, lan istripu gehienak saihestu daitezkeela kontutan hartzen badugu, bereziki".



MODU ERAGINKORREAN MOBILIZATZEN GARA LAN ETA GIZARTE ESKUBIDEAK ERREBINDIKATU, BABESTU ETA HOBETZEKO

MANIFESTAZIOA
DONOSTIAN
Alderdi Eder-en, 12.00etan

CCOO
euskadiko langile komizioak

maiatzak

Euskal Herria decide
KAPITALA HAUTSI,
BIZITZARI EUTSI

LAB

MAIATZAK 1 BAIONA / IRUÑEA

Bidebarrieta, 1 943 82 04 89

LAB Eibar

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

KRISTALAK

ARKITEKTOAK

olatz etxeberrria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberrria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com
ERAKUSKETA
Arikixaneko Zubian
eta faxa: 943 203 903

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superfizie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Maiatza goi maillako argazkixekin jantziko dabe atzera be Deporreko Argazki Taldekuak

Martitzen arratsaldian aurkeztu eben Argazkilaritza Maiatzean Eibarko Klub Deportibuan. Maiatzaren 3tik aurrera 256 argazki ikusteko aukeria izango dogu, egun horretan, 19:00etan zabalduko diran bederatziti erakusketatan: Portalean Jose Miguel Alba, Andres Indurain eta Luis Camacho argazkilarixen lanak ikusteko aukeria egongo da; Topalekuan, Jose Ignacio de Castrorenak; El Ambigú eta Portalea tabernetan, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideenak; Klub Deportibuan, Argizaiola Sarixa; Untzagako Jubilau Etxian, Nazioarteko Gipuzkoa Sarixa; eta El Corte Inglesian, Emilia Valenciarenak. "Goi mailako argazkixak" ikusteko aukeria emongo deskuen erakusketekin batera, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldiak antolatu daben egitarauan beste jarduera batzuk be badagoz: maiatzaren 4an Gabriel Brau argazkilarixak 8 orduko taillarra eskinduko dau Portalean (10:00-14:00 eta 16:00-20:00 eta izen-emotia 20 euro balioko du eta argazkilaritza@deporeibar.com helbidian egin bihar da).

taillarra eskinduko dau Portalean (10:00-14:00 eta 16:00-20:00 eta izen-emotia 20 euro balioko du eta argazkilaritza@deporeibar.com helbidian egin bihar da). Taillarra emotiaz gain, "Fotografia digital en blanco y negro" liburua aurkeztuko dau. Argazkilaritza rallya, barriz, beste batzuetan baiño lehen, maiatzaren 12xan izango da oinguan, "Euskal Jaixarekin bat egittek, guretako hori oso inportantia dalako eta, bestiak beste, argazkixetan etara biharreko gaixen artian beti sartzen dogulako Euskal Jaixa". Eta Untzagan egitten daben "Topaketak kalian" maiatzaren

25ian izango da, 17:00etatik 21:00etara. Horrez gain, aurtengo egitaraua ekaiñaren 6ra arte luzatuko dabe, Fotogune-ren bitartez Harvey Wang argazkilaria amerikarra gonbidatu dabe eta. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara pelikulia eta hitzaldi-solasaldixa eskinduko dittu Portalean. Antolatzailliak azpimarratu ebenez, "urte-tik urtera gero eta gatxagua da argazki erakusketetarako egilliak topatzia, gehixenak ez dabelako euren lana positibatzen eta



geuk, barriz, ez daukagu hori gure gain hartzeko moduko aurrekonturik". Edoze-lan be, Eibarren bertan argazkilarixak da-ken mailla altua goratu eben eta, horrez gain, laguntzen daben guztieri eskerrak emon zetsazen, "bereziki Untzagan egit-ten dogun topaketan etaratako argazki-xak jendiari musutruk emoten detsazen lkatz argazki dendakueri, baitta erakus- ketetarako kartelak egitten deskuzen Ai- tor Divassoni be".



Juan Miguel Alba Molina

JUAN MIGUEL ALBA MOLINA

Maiatzaren 3tik 26ra, Portalean.

Martitzenetik domekara, 18:30-20:30

Kubako nekazarixeri esaten jakue "guajiro" eta Juan Miguel Alba Molina argazki-larixaren ardatza hórretxek osatzen dabe: erakutsiko dittuan argazkixak 1999tik 2017ra arteko nekazari giroko Kuba jasoz-zen dabe, tabakua, azukre-kaña, frijoleak, malanga, mangoak, bonba fruta... ekoiz-ten dabenak protagonista dittuen irudixe-tan. Erakusketaren inauguraziñuan, gaiñe-ra, proiektuaren inguruan egin daben libu-rua aurkeztu eta salgai ipiñiko dau.



Andres Indurain

ANDRES INDURAIN

Maiatzaren 3tik 26ra, Portalean.

Martitzenetik domekara, 18:30-20:30

lazko Indalezio Ojanguren argazki lehiake-tia irabazi eban Andres Indurainek gurera ekarriko daben argazki erakusketiak bada-ka berezittasunik. Izan be, antolatzaillieri aurreratu detsenez, erakutsiko dittuan ar-gazkixetan aniztasuna izango da nagusi, ez da monotematikua izango.




Luis Camacho

LUIS CAMACHO

Maiatzaren 3tik 26ra, Portalean.

Martitzenetik domekara, 18:30-20:30

Portaleko erakusketa aretuak hartuko da-ben hirukotia osatzeko Luis Camachoren lanak ikusteko aukeria izango da. Kaleko argazkilaritzaren emaitza diran irudixak ekarriko dittu Eibarrera, hain zuzen be Ma-drilgo Gran Vian hartutako argazkixak, eta kasu honetan be bada berezittasunik: ar-gazkilaritzaren barruko azpiatal honetan gehixenetan zuri-baltza erabiltzen daben arren, argazkilarixak oinguan koloria auke-ratu dau bere lanetarako.



Jose Ignacio de Castro

JOSE IGNACIO DE CASTRO

Maiatzaren 3tik 26ra, Topalekuan.

Astelehenetik barixakura, 19:00-21:00.

*Zapatu eta domeketan, 12:00-14:00
eta 19:00-21:00*

Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren ba-rruan, urtero Klub Deportiboko Argazki Tal-deko kide bateri erakusketia ipintzeko au-keria emoten detse eta aurtan Jose Igna-cio de Castroren txanda izango da. Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretuan for-mato haundiko 10 argazki eta zuri-baltzian egindako beste 10 erakutsiko dittu, "dan-danak erretratuak. Izan be, jendiak gaur egun argazki asko egitten dittu, baiña erre-traturik ixa ez dago".

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDIA

*Maiatzaren 3tik 31ra,
El Ambigú eta Portalea tabernetan*

Badira 20 urte Klub Deportiboko Argazki-laritza Taldekuen eskutik herriko taberne-tan hillero argazki erakusketak egitten di-rala eta datorren hillian be El Ambigú eta Portalea tabernetan taldeko kidien lanekin erakusketa kolektibua ikusteko aukeria eukiko dogu.

ARGIZAIOLA SARIXA 2018

*Maiatzaren 3tik 31ra, Deporren,
astelehenetik barixakura, 17:30-21:30*

Euskal Herriko Argazkilari Elkartearen Fede-razioaren lehiaketa arloko erakuslia da Ar-gizaiola Sarixa. Erakusketa hau prepara-tzeko iazko lehiaketara gonbidatutako 39 egilliak aurkeztutako 245 lanen artian au-keraketia egin dabe.



Emilia Valencia

EMILIA VALENCIA

Maiatzaren 3tik 31ra,

*El Corte Inglesian, astelehenetik
zapatura, 11:00-21:00*

Inguratzen gaittuen gauza xumeak dira ar-gazkilari honen lanen abiapuntua eta, an-tolatzaillien berbetan, "beste argazkilari-xak bezin ezaguna izan barik be, oso gau-za berezi eta polittak egitten dittu". Beste argazkilari batzurekin pasau dan moduan, gure herriko topaketiak etorkizunian ate asko zabaltzia espero dabe.

NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA

*Maiatzaren 6tik 31ra,
Untzagako Jubilau etxian,
astelehenetik domekara, 20:00- 21:30*

Erakusketiak Nazioarteko Gipuzkoa Sarixa-ren 46. ediziñuan saritutako 63 lanen artian aukeratu dittuen 34 argazki biltzen dittu.

*pedro alberdi*

Gure txikitako jolaslekuak, Toribiorentzat mingarri. Orain guri tokatzen zaigu gure garaiaren hondamendiaren berri ematea.

Toribio Etxebarria (II)

1964an Sansaburu inguruak baratzak ziren. Mendiko bidezidorrean aurrera, Urkiko azken aldapa baino lehen, bazegoen leku atsegin bat, iturria, aska eta pago zabal bat zituena. Adarrik gabeko pago motz hari *"el árbol de las tres camas"* esaten genion, hiru lagunentzako etzaleku egokia zuelako enbor gainean, eta maiz joaten ginen bertara jolastera.

Toribio Etxebarriarentzat urte berezia gertatu bide zen 1964ko hura. Toribiok, Caracasen erbesteraturik, 28 urte zeraman Eibartik kanpora. Egoera politikoa aldatu, ordea, eta udan jaioterrira bisitan joateko aukera izango zuen. 77 urteko aitona zen, ordurako.

Harrera hunkigarria egin omen zioten herriko adiskide zein ezagunek. Argazkian, adineko eibartarren lagun-koadrila bat ageri da, dotore jantzita, Toribio inguratuz, Getariako San Prudentzioko osatuan, bertan egindako bazkari-ospakizunean.

Bisitalditik Caracasera itzulirik, honela idazten dio Santiago Arizmendiri, 1.964ko urriaren 15ean: *"Una de mis grandes ilusiones era la de volver a andar los rústicos caminos de alrededor de la villa... Tales senderos me he encontrado con que apenas existen, borrados por una vegetación hostil poblada de espinas, o convertidos en escondrijos para necesidades de una población que no cabe en lo urbano... Las nobles especies autóctonas han desaparecido: el haya, el roble, la encina,... los boletus y las rusulas..."*.

Beraz, gure txikitako jolaslekuak, Toribiorentzat mingarri. Orain, berriz, 1964ko haurrok pixkanaka-pixkanaka Toribioren adinera hurbiltzen ari garenean, guri tokatzen zaigu gure garaiaren hondamendiaren berri ematea.

*amagoia gomez*

Begiak itxi eta pentsatu momentu horietan. Aukeratu zuk zeurea eta irribarre egin. Barrutik kanporantz. Espero dut iribarretxo bat atera izana.

Iribarre bat

Denbora luze egon naiz iritzi zutabe honetako gaia zein izango ote den erabakitzen. Oraingoan, Aste Santuko oporren bihar-munean eta hauteskunderen atarian tokatu zait idaztea. Lesbosa iritsi berri da Aita Mari itsasontzia, baina ez du baimenik bere lana egiteko. Altsasukoek eta beste errugabe askok kartzelan jarraitzen dute boterean daudenen gustukoak ez izateagatik. Iruñean beste neska bat bortxatu dute eta astero hiltzen dute emakume bat Espainiar estatuan. Baina nik ez dut gai ilun, gordin eta tristeei buruz idazterik nahi. Erronka polit batekin natorkizu oraingoan. Iribarre bat atera nahi dizut. Euskararen aldeko Korrika orain dela astebete pasatu zen gure herritik eta momentu horretan irribarre ikusi nuen zure aurpegian. Zein ederra! Hunkigarria

izan zen. Oporretan ere mendira joan zarenean, belarretan etzan eta zerura begira lasai egoterakoan, irribarretsu ikusi zintudan. Zure lagunekin gustuko musika taldearen kontzertura joan zinenean ere pozik zeuden. Begiak itxi eta pentsatu momentu horietan. Aukeratu zuk zeurea eta irribarre egin. Barrutik kanporantz. Zure egunerokotasunean gelditu eta itxi begiak minutu batez. Paolo Coelho ematen dut, ze desastre! Ez zen nire intentzioa (kar, kar, kar). Denbora luze eman dut idatzi honetako gaia zein izango ote zen pentsatzen. Ez nuen oporrei buruz, Korrikari buruz, injustiziei buruz edota hauteskunderi buruz hitz egiterik nahi. Nire helburua ere ez zen autolaguntzako eskuliburu bat idaztea. Baina espero dut zuri iribarretxo bat atera izana gutxienez.

AUTOEN gehigarria



41. zenbakia.

EAEko autoen 'renove plana'ren baldintzak eta betebeharrak

Diru-laguntza martxotik eskatu daiteke eta 2.000 eurotik 3.000 eurora artekoa izango da erositako ibilgailuaren arabera. Hala, elektrikoak izango dira laguntza handiena jasoko dutenak, eta gasolina edo dieselak, txikiena.

Laguntza-planaren helburua garraioan energia-kontsumoaren eraginkortasuna areagotzen laguntzea da, horrela ingurugiroari kalte gutxiago egingo zaiolako.

Bost milioi euroko poltsa sortu dute laguntzetarako, eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuentzako izango da. EAEn bizi edo egoitza soziala eta fiskala bertan dutenentzako edo tokian tokiko erakundeentzako dago bideratuta laguntza.

Txatarra bihurtzea

Energiaren Euskal Erakundeak gogorarazi du autoa txatarrerako utzi behar dela, hau da, behin betiko baja eman behar zaiola. Era berean, ibilgailuak gutxienez zazpi urte dituela egiaz-tatu beharra dago furgoneten kasuan, eta 10 dituela turismoe-nean. Laguntza eskatu duenak 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik eduki behar du autoa bere izenean.

Energia-kalifikazioa

Era berean, laguntzak jasotzeko izapideetan energia-kalifikazioa eskatuko da gasolina edo diesel diren ibilgailuen kasuetan, eta gutxienerako kalifikazioa A izan beharko da. N1 mailako ibilgailuek emisio muga bete beharko dute, tamaina bereko ibilgailuen batez besteko kontsumoaren % 25eko aurrezkia, alegia.

Bestalde, laguntza hauetatik erabat kanpo geratzen dira ibilgailuen salerosketa edo alokairua eskaintzen duten enpresak.



Laguntza programa honen izapide guztiak (eskaerak, jakinarazpenak, etab.) Energiaren Euskal Erakundearen webgunean egin beharko dira.

Laguntzak

Diru-laguntza 2.000 eurotik 3.000 eurora artekoa izango da erositako ibilgailuaren arabera. Hala, elektrikoek izango dira laguntza handiena jasoko dutenak, eta gasolina edo dieselak, txikiena.

Gehienez 25.000 euro balio duten autoentzako soilik eska-tu ahal izango da laguntza, elektrikoan eta hibridoan kasuan izan ezik, horiek 40.000 euro arteko prezioa izan ahalko dute.

Torrekua, 2
20600 EIBAR

Tel. eta Faxa
943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31
eseibar@facilnet.es

ESTACION DE SERVICIO AVIA EIBAR, S.A.

FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA
AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA

24 orduetan zabalik

www.estaciondeservicioeibar.com



Autos Amedi

SALMENTA eta
KONPONKETA
autosamedi@telefonica.net

CITROËN

Zearreko buelta, 3 zkia. - ERMUA

717 067 879
943 170 414

Konfidantzako zure konponketa lantegia, zentroan kokatuta.

Talleres Caño

Hurrengo inaugurazioa Ubitxa 2 (Oraingoz Armagin 8)



EZ DA PROMOA, BENETAN EGIA BAIZIK.

Eibarko PREZIORIK merkeenak...
...MARKA guztietako neumatikoetan



Carrocerías ARANE

Arane, 6 - 3.
Tel. 943 70 26 20
Fax. 943 12 19 54
arane.carrocerias@hotmail.com

Zure betiko KARROZERIA...



... orain MEKANIKA zerbitzuarekin

AEBek erabat eten nahi dituzte Iranen petrolio esportazioak

Iranen aurkako gerra ekonomikoa gogortzea erabaki du aste honetan Donald Trump AEBetako presidentek. Zerora murriztu nahi ditu herrialde haren petrolio esportazioak, neurri horrek Teherango gobernu itoko duelakoan. Horretarako, datorren astean bertan behera utziko du herrialde batzuei Irango petrolio erosteko emandako baimena. Petrolioaren prezioak gora egin du nabarmen iragarpenarekin, eta gehiago igo daiteke, baldin eta Saudi Arabiak eta Arabiar Emirerri Batuek ez badute ekoizpena berehala handitzen.

Washingtonen iragarpenak petrolioaren berehalako garestitzea ekarri du. %3tik gora igo zen joan den astelehenean Brent upe-laren prezioa, 74 dolarerraino. Azken sei hilabeteetako preziorik handiena da.



Ibilgailuen abiadura automatikoki mugatuta egongo da 2022. urtetik aurrera

Akabo azeleragailua zapaldu eta gure autoa 150 km edo 180 km orduka jartzea; ezta 50eko muga daukaten bideetan bizkorrago joatea ere. Europar Batasunak onartu duen araudi berri baten arabera, 2022. urtetik aurrera ibilgailuen abiadura automatikoki mugatuko da, horretarako GPSa eta kamera bidezko irakurketak erabiliz. Europar gertatzen diren istripurik gehienak abiadura-muga gainditzearen gertatzen dira eta gure errepideetako segurtasuna handitu nahi da.



Europar Batasunak araudi berria onartu berri du eta 2022. urtetik aurrera ibilgailuek sistema automatikoak izan beharko dituzte abiadura maximoak mugatzeko. Horretarako, GPS irakurketak eta bideko seinaleak irakurriko dituzten kamerak izan beharko dituzte ibilgailu guztiek.

Sistema horiek dagoeneko garatuta daude eta jada erabiltzen dira zenbait ibilgailutan, baina informazio hutsa emateko (ez dute abiadura-maximoa automatikoki mugatzen). 2022tik aurrera, ordez, muga hori ezingo du gainditu gidariak, ezta azeleragailua zapaldu ere.

Araudi berriak beste neurri teknologiko batzuk ere zehazten ditu, besteak beste, "kutxa beltz" modukoak, gidariaren arreta monitorizatzeko sistemak, bapateko oztopoen aurrean ibilgailua automatikoki frenatzea, eta abar.

Erabaki honek zalaparta pixkat ere sortu du gidari-elkarte batzuen artean, arrisku-egoera batean gidariak ezingo baitu abiadura handitu, eta erabaki nagusiak Intelligent Speed Adaptation (ISA) horren esku egongo baitira, baina ez dirudi araudiak atzera bueltarik duenik. Azken batean, gidaririk gabeko ibilgailuak gero eta aurreratuago dauden honetan, tarteko erabaki bat besterik ez da, gidaridun ibilgailuak ere, neurri handi batean, sistema automatikoen bidez kudeatze aldera, betiere segurtasuna handitzeko asmoz.



AUTO KONPONKETAK

AURRERA

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)



Matsaria, 2
3 Pabillioia
-Eibar-

Pintura (labean lehortua)

Txapa

Neumatikoak

Mekanika

943 208 502 carrocerias_mak@hotmail.com 699 203 791

GASOLEOEN BANAKETA





20.000 L.

2.000 L.

Otaola etorbidea, 13-Bis

24 ordu

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Ivan Arakistain elektronikoa da ogibidez, Tecnalian egiten du lan, baina gaur egun datuen analisiari gero eta garrantzia gehiago ematen zaionez, *Big Data*ren inguruko masterra egin zuen. Tesia egiteko orduan etxera begira jarri eta Eibar KE-k herriko ekonomian duen eraginaren inguruko azterketa egin zuen, *Tactizity* sortuz. “*Taldearen eragina zenbatu nahi nuen eta nola baliatu daitekeen ikusi*”. Orain, Athletic Clubek Bilbon duen eragina aztertzen dihardu.



IVAN ARAKISTAIN (DATUEN ANALISIAN ADITUA):

“Eibar KE lehen mailan dagoela aprobetxatzen da, baina gehiago egin daiteke”

- Orokorrean, zein da Eibar KE-k lehen mailan jokatzek hiriko negozioetan duen eragin ekonomikoa?

Arlo ekonomikoari dagokionez hiriarrentzat oso positiboa da lehen mailako talde bat izatea. Eibar marka ezagutzera ematen du, bisitariak erakartzen ditu eta foball taldeak inguruko enpresen zerbitzuak gehiago kontratatzen ditu. Taldea lehen mailara igo zenetik Eibar sarritan agertzen da hedabideetan eta presentzia hori ordaindu behar izango balitz, 37 euro inguru pagatu beharko lirateke. Hori bai, marka bat aprobetxatzen ez bada, ez da ezer.

- Hiri guztiak jaso ditu taldea lehen mailan egotearen onurak ala negozio edo herriko gune batzuetan bakarrik nabari-

tzen dira onura horiek? Ba dago kalte-tua izan den norbait?

Orokorrean positiboa izan arren, eragina ezberdina da negozio sektorearen arabera. Ez da berdina ostalaritzan edo jantzi eta moda dendetan, esate baterako. Kalte-tu baina gehiago, bada eraginik nabaritzen ez duenik. Adibidez, larunbat arratsalde batean Eibarrek etxean jokatzeko badu, partidura doazen ikusleek ez dute koinatzeko lan asko behar duen janariarik erosiko edo agian ez dira erropa dendetara joango. Aldiz, partidurik ez dagoen beste egun batzuetan inguruko herrietatik jende gehiago etortzen da Eibar markak erakarrira. Kokapenak ere badu garrantzia, herriaren erdialdean eta lpurua inguruan dauka eraginik handiena Eibar KE-k. Bestetik,

komertzio txikiaren egoera zaila da, baina ez Eibarren bakarrik, orokorrean baizik. Onurak bultzatu daitezkeen eta Eibar KE-ren eragina nabaritzen ez duten sektoreak beste era batera bultzatu daitezkeen ikustea zen lanaren helburuetako bat, lpuruan partidurik ez dagoenean adibidez.

- Nola egin duzu azterketa?

Big Dataren inguruko ikasketak egin ditut, beraz, derrigorrezkoa nuen tresna informatikoez baliatzea analisia egiteko. Hiru datu iturri erabili ditut azterketa egiteko: datu iturri askeak (<http://www.gipuzkoairekia.eus/es/datu-irekien-katalogoa>, adibidez), hiriko negozioei inkestak eta sentsoreen datuak. Jasotako datuak kudeatu eta zuzitzeko programa bereziak erabiltzen dira, eta horiek erabiltzen jaki-

FCO. JAVIER LARREATEGI LENISORO

2019ko apirilaren 16an hil zen, 65 urterekin



**ZURE irribarrea eta samurtasuna
 betiko izango dira GURE ARTEAN.**

ZURE FAMILIA



Arakistainek aztertutako parametroak daude ikusgai eskuineko irudian.



teko ikasi egin behar da. Ondoren, datuak denontzat ulergarri jartzen saiatu naiz.

- Beraz, azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin duzu, ezta?

Bai, baina iritzia zenbakitan azaltzen saiatu naiz. Iritziak errepikatu egiten dira, sektore bakoitzeko negozioek antzeko iritzia daukatelako. Beraz, analisisan aurkezten dena oso fidagarria da.

- 2018an publikatu zenituen ikerketaren emaitzak, baina erabili izan dira hobekuntzak bilatzeko edo ahalik eta etekin handiena lortzeko? Eibar KE-k, Udalak, ostalariek, dendariak... datuak aintzat hartu dituzte estrategia berriak finkatzeko?

Eibar KE-rekin, Udalarekin eta Dendarien Elkartearekin partekatu ditut datuak. Eibar KE-k badaki, foballaz gain, taldea Eibar jendea erakartzeko tresna bat dela. Adibide bat jartzearen, Eibar KE-k Antzerki Jardunaldiak eta beste hainbat ekimen babes-ten ditu, foballa garrantzitsua den arren, beste ekimen batzuk ere beharrezkoak dir-lako. Dendarien elkartearekin iritziak trukatze-ko aukera izan dut eta baliagarria iza-tea espero dut.

- Eibar KE lehen mailan dagoela aprobetxatzen du herriak?

Bai, baina gauza gehiago egin daitezke. Adibidez, partidurako sarrerarekin hotela eta nonbaitera bisita barne dituen pakete-ak egin daitezke. Hiri handietan horrelako-ak egin ohi dira.

- Bilbon ere antzeko azterketa egiten zabilta. Alde handia dago Bilbo eta Eibar artean?

Eskala ezberdina da, baina foball taldeek hirian duten eragina antzekoa da. Azaroan egingo den *World Football Summiten* aurkeztuko dut emaitza.

- Eibarren egin duzun bezala, beste hiri batzuetan erabiltzen da datuen analisia?

Bai. Datuen analisia gero eta gehiago erabiltzen da hirietan. Italian, adibidez, zinema-aretoen kate batek sarreraren prezioa modu dinamikoan aldatzen du. Hau da, prezioak igo edo jaitsi egiten dituzte egiten duen eguraldiaren, filmean jarduten duten aktoreen eta bestelako baldintzen arabera. Bestetik, gaur egun zaila da hegazkin be-rean doazen bidaiarik bik hegaldiarengatik prezio bera ordaindu izana. Hegazkinen eta zinemaren negozioak ez dira hain ezberdi-nak, negozio bietan eserlekuak betetzen dira. Estatu Batuetan, adibidez, satellite bi-dezko datuak aztertzen dituzte merkataritza-guneen negozioa aurreikusteko, mer-kataritza-gune hauetako parkinetan dago-en auto kopurua zenbatuz.

- Big Data eta horrelako terminoak hainbat alditan entzun ditugu azken aldian, baina zer da zehazki? Edonoren esku

“Hiriaren ekonomiarentzat oso positiboa da foball taldea lehen mailan egotea”

“Partidurik ez dagoen egunetan inguruko herrietatik jende gehiago dator Eibar markak erakarrita”

dago datuak hartu eta gure interesekoa dena bilatzea, ala erraminta eta jakintza bereziak behar dira?

Orain dela urte batzuk interneteko en-presa handiak (Google eta abar) kontura-tu ziren tresna berriak behar zituztela da-tuak aztertze-ko, datu horien tamaina oso handia delako edo erantzunak oso azkar behar zituztelako. Behar horren ondorioa da *Big Data*. *Big Data*z baliatzeko tresnak gero eta eskuragarriago daude edozei-mentzat. Ordenagailu bat behar da eta, memoria ahalmen gehiago behar izanez gero, *Amazon* edo *Google*-ri zerbitzariak alokatze-ko aukera dago. Hala ere, ezagu-tza batzuk behar dira jasotako datuak az-tertu, kudeatu eta interpretatzeko.

- Beste zer gauzatarako erabili daitezke denon eskura dauden datu horiek?


Aukera zabala dago. Askok ezagutu ez arren, adibidez, Europa mailan bada Co-pernicus izeneko satellite-sare bat eta da-tu ugari partekatzen ditu. Datuek hainbat aplikazio izan ditzakete: ingurugiroan, mu-gikortasunean, landaketetan... Eta datu askeak dira herritar guztiontzat!

SIRA CARBALLUDE CACHEDA

(I. URTEURRENA: 2018-IV-21)

Urtebete da gure ondotik joan zarela, baina bizirik jarraitzen duzu gure pentsamendu eta bihotzetan. Eskerrik asko gure bizitzetara eskainitako guztiarengatik.

Zure senarrak, seme-alabek eta bilobek **Maite zaitugu!!**



Deporrekoen Aste Santuko zeharkaldiak Tarragona aldean

Aurreko asteko eguenean Klub Deportiboko 26 lagun Tarragona aldera abiatu ginen Pradesko mendietan zeharkaldi batzuk egitera. La Febró herri txiki bezain dotorean hartu genuen ostatu. Eguenean bertan, Vilosell herritik El Curull (1022 m.) tontorrera igo eta Vallclara herrian amaitu genuen, 12 km. inguruko txangoa. Eskualde hau Priorat ardo ezagunekin muga egiten du, haren iparraldean datza. Paisaia ordekek eta mendizerra ez oso garaiek osatzen dute. Nabarmentzekotan, hurritzak, ugari daude landatuta gozogintzarako. Bigarren egunean, Ulldemolins herritik La Morera de Monsant herri dotorera jo genuen. Oraingoan mendi-mendian murgildu ginen, Serra Major eta Muntanyes de Montsant mendikateak kobazulo eta mendi zintzurrez josita daude baina ibilaldiek ez dute inongo arazorik guri bezala eguraldi lehor, hori bai oso haizetsua, tokatzen bazaigu. Gure ibilbidean, Mare de Deu de Montsant basiliza ezagutu ge-



nuen eta Roca Corbatera gaindu genuen. 17 km. eta 1200 metroko desnibela. Inguruak aipaturiko koba eta leize zuloek kanpo, bestelako interesguneak baditu, adibidez, Siurana herria, gain batean, bere gaztelua eta harkaitz izugarri handiak. Eskalada lekua ere bada. Via ferratak ere ez dira gutxi. Hirugarren egunean, Capafonts herritik, La Mussara herri abandonatura altxa eta Prades herrira jaitsi ginen. Bista ederrak, Mediterraneo Itsasoa ikusten da gain-gainetik. 20,5 km. egin genituen.

Azkenik, laugarren egunean, Aberri Egunez, Prades herritik La Baltasana tontorrera igo (1.201 m.) eta Farena herri txuku-

netik igaroz Rojals herrixkara iritsi ginen. Herri hau Montblanc herriarekin lotuta dago errepide xut baten bidez. Zeharkaldi luzeena: 24 km.

Astelehenez, etxera itzultzeko eguna, Pobleteko monasterio izugarri ederra bisitatu genuen goizez. Harrigarria bere neurrietan, erromanikotik gotikora doan estiloan, XII. mendean hasi zen eraikitzen; Cister ordenako beneditarrek gobernatzen dute. 26 dira. Kulturaz blai egin ondoren, hurrengo bazkari oparoa egitea zen, horretarako Montblanc ospatu genuen zeharkaldiko azken eguna.

ANTXON NARBAIZA

Asola Berrik hartuko du bihar Gipuzkoako txapelketaren tiraldia

Floreagan jokotutako Gipuzkoako 50. hiru-txirlo txapelketaren laugarren jardunaldiaren ondoren, Angel Ibarluzea elgoibartarrak hiru puntuko alde ateratzen dio Ganix Rodriguez eibartarrari eta zazpi lker Arizmendiarieta markinarri. Azken jardunaldiotan aurrera egin du Asola Berriko Alex Camposek eta, dagoeneko, sailkapen orokorreko bosgarren postuan dugu, lidererengandik 11 txirlora. Alde handiak zabaldu dira, beraz, txapelketaren erdialdera gerturatzearekin batera. Campos eibartarra nagusitu zen Florea-



Alex Camposek irabazi zuen azken tiraldia.

gan hartu zituen 62 bolariren artean, zazpi txirlo botata, eta txirlo bakarrera sailkatu ziren beste hainbat bolari, tartean

Ganix Rodriguez Asola Berriko taldekidea.

Asola Berrik biharko tiraldia hartuko du, txapelketaren

bosgarrena, betiko moduan 17:00etatik aurrera. Aurten, gainera, bigarren jardunaldia izango dute bertan, aurretik Soraluzen jokatu beharrekoa bertan egin zutelako eguraldi kaskarren eraginez. Sailkapen orokorrari begira, bestalde, emakumezkoetan Sonia Gomez eibartarra laugarren da, bi lidererengandik txirlo bakarrera. Eta bikoteka zein taldeka Asola Berrikoak bigarren daude, Elgoibarko San Migueleko ordezkarien atzetik, txirlo bakarrera bietan: Camposek eta Ganixek Ibarluzea liderra dute aurretik.

Bi talde lidergoan berdinduta foball-zaletuen ligaren azken jardunaldian



Azkena Adahik alde du golaveragea asteburu honetan jokatu beharreko Kirolbet.es Ligaren azken jardunaldiari begira. Berdinduta dago Garajes Garciarekin sailkapenaren goiko aldean, baina aurrekoaz gain neurraketa errazagoa ere izango du, aurreikusitako daitekeenez: Los Paisanos L. Rue-

da azken sailkatua izango du aurkari Unben domekan 09:00etan, Garajes Garciak Durango hirugarren sailkatuari aurre egin beharko dion bitartean. Aipatutako hirurek alde handia atera diete beste guztiei: lehen biek 59 puntu dituzte, Durangok 52 eta hurrengoek 37.



Jon Osa igerilariak marka pertsonalak egin zituen Sabadellen

Eibarko igerilariak lan zoragarria egin zuen Sabadellen jokaturako XX. Espainiako P-50 Astralpool igeriketako absolutuen Irekian eta XXX-VI. Espainiako junior mailako igeriketako txapelketan. Hainbat modalitateko finalerdietara iritsi zen eta junior mailan estatuko maila gorenean dabilzan pare lehiatu zuen, postu bikainak eskuratuz eta marka pertsonal ugari eginez.

Bestalde, Eibar Igerixaneko gazteenek oso ondo lehiatu zuten Azkoitiko Zubiaurre kiroldegian jokaturako alebin mailako seigarren jardunaldian eta Ipuruan jokoan izan zen benjamin mailako laugarrenean. Azkoitian 11 igerilarik ordezkatu zuten gure herriko taldea eta Eibarren 16k hainbat probatan parte hartu zuten. Azkoitian, gainera, Iker Calvok bi proba irabazi zituen (220 tximeleta eta 200 bizkarra).

Deporreko squash hiru jokalarik Euskal Herriko txapelkun Bilbon

Aurreko asteko zapatuan Bilboko Rekalde kiroldegian jokaturako Euskal Herriko I. Squash txapelketan, Gipuzkoako ordezkari nagusitu zen finalean Bizkaia doi-doi irabazi ondoren. Finalean bina partidutara berdindu zuten, zazpi setetara eta baita jokoetara ere (106-106). Lehen jokalariek lortutako emaitzek erabaki zuten azkenean.

Araba eta Nafarroa izan ziren beste bi partaideak, finalerdietan kanpoan geratu zirenak. Gipuzkoako selekzio irabazlea Eibarko Klub Deportiboko jokalariek osatu zuten ia guztiz (Alberto Ferreira, Sergio Salgado eta Miguel Cabanillas) eta Lur Alaiko Xabi Azaldegiz izan zen laugarren jokalaria.



Buruz-buruko txapelketa nagusiko partidua hartuko du Katedralak etzi

Asteburu honetan pilotari profesionalen lehen mailako txapelketaren final-zortizrenetakoa jokatu da Astelenan domekan, jaialdiko partidua nagusian. Han izango dira Iribarria eta aurreko fasean, Bakaikoari irabazita, aurrera egin zuen Victor errioxarra. Jaialdia Ezkurdia-Tolosa eta Elezkano-Marti-

ja bikoteen arteko partiduekin hasiko da, goi mailako laukotearekin beraz; amaitzeko, bestalde, Dariok eta Oier Etxeberriak Ugaldek eta Ruizek osatutako bikoteari egingo diote aurre. Astelenak hartuko du txapelketa handi horretako beste partidua ere, finalerdietan.



Binakako txapelketa nagusian neurtu zituzten indarrak orain dela gutxi Iribarria eta Victor aurrelariak.

Lau partiduko jaialdia gaurko

19:15ean hasiko den jaialdian Eibarko Klub Deportiboko lau pilotarik buruz-buruko partiduei egin beharoko diete aurre. Jaialdia hasteko, 2. mailako kadeteen partiduan Camina eibartarrak Arrasateko Barandiaran izango du aurkari eta, jarraian, 1. mailakoan Azkargortak Ilunpeko Arrizabalaga izango du aurrez-aurre. Beste bi partiduetan helduek jardungo dute: Narbaizak Azkoitiko Aitor Oteizarekin neurtuko ditu indarrak eta Conde Eibarko beste ordezkariak Goierriko Ibañezekin.

ANTONIO BARRIO GUEDE

6. URTEURRENA: 2013-IV-26



“Zure irribarre eta samurtasuna betiko izango dira GURE ARTEAN”

ZURE FAMILIA





ARGAZKIAK:
 Ekhi Belar

Arraten eta Toribio Etxebarria kalean zuten helmuga Euskal Herriko Itzuliko azken bi etapak, eta emozio handiko bi jardunaldi bizi ondoren Astana taldeko Ion Izagirrek jantzi zuen txapela Untzagako podiumean. Azken etaparen ormaiztegiarrak helmugatik 65 kilometrotara egin zuen eraso Jakob Fuglsang taldekidearekin, Toribio Etxebarriako helmugan irabazi zuen Adam Yatesekin (Micheltan) eta UAEko Dan Martinekin eta Tadej Pogacarrekin. Arraten irabazi ondoren Itzulia eskuetan zuen Emanuel Buchmanni (Bora) maillot horia kentzea lortu zuen.



JAVIER LARREATEGI LENISORO
2019ko apirilaren 16an hil zen

“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”

TXINDOKI KUADRILAKO BERE LAGUNAK





Senior mailako taldea entrenatzaileekin.

Ipuruako gimnastek brontzeko domina eskuratu zuten espainiako Kopan

Nahia Arguiz, Alaitz Aranbarri, Arrate Baroja, Nahia Gonzalez eta Jennifer Hernandezek osatzen duten seniorretako taldea hirugarren geratu zen hilaren 12 eta 14 artean Guadalajaran jokatu zen Espainiako Kopan. 2009. urteaz geroztik estatu mailan kategoria absolutuan Ipurua-ko gimnastek lortzen duten lehen domina izan da eta Tania Nagornaya, Miriam Merino, Natalia Urmakaeva eta Helena Jauregi entrenatzaileak pozik daude taldearen lanarekin.

Haizeder Arguiz, Maialen Apraiz, Elene Ramirez, Emile Zamakola, Naiara Cadavid eta Naroa Alonsok osatzen duten infantil mailako taldea, bestetik, estreinakoz lehiatu zen estatu mailako txapelketa batean, eta 11. postuan amaitu zuen 40 talderen artean. Jubenilek, ostera, zorte txarra izan zuten saioan eta aparatua pare bat aldiz jausi zitzaizen. Beraz, ezin izan ahal zuten ordura arte egindako denboraldi bikaina berretsi.



Deporteko ordezkariak podiuean.

Klub Deportiboko atletek hainbat domina lortu zituzten Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan

Gasteizko Mendizorrotzan jokatuako aire libreko proba konbinatueta Euskadiko txapelketan Imanol Egidazuk lehen postua eskuratu zuen 18 urtetik beherako oktatlo proban. Euskadiko marka egiteaz gainera, Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuen. Kepa Marquez, berriz, bigarren izan zen lehiaketan. Bestalde, Donostian jokatuako Gipuzkoako txapelketan,

beteranoetan Marcos Unzetabarrenetxea bigarren izan zen 1.500 metrotan. 18 urtetik beherakoetan, Garoa Magunazelaiak eta Ekain Egurrolak (xabalina) eta Aratz Morak (pisua) txapela jantzi zuten. Eta gauza bera egin zuten 16 urtera artekoen mailan Kalaka Gonzalezek (disko eta xabalina jaurtiketetan) eta Nora Zabalak (jauzi hirukoitza). Zilarrezko beste sei domina ere ekarri zituzten.

Kalamuakoak bikain jiu-jitsuko borroka mailan

Langraitzen jokatuako jiu-jitsu modalitateko Fighter Ipar Koparen hirugarren edizioan hartu zuten parte Jonatan Terron eta Jonatan Garcia Kalamuako ordezkariak urrezko dominak irabazi zituzten, lehenengoak Open mailako gerriko urdinean eta bigarrenak absolutu mialako gerriko beltzarekin. Klubetik diotenez, "borroketara aurkeztu garen lehen aldia izateko, emaitzak ezin hobek izan dira".



Kalamuako Jonatan Terron podiumaren goi mailan.



ELISABETE GARAIZABAL ISASTI

2019ko apirilaren 20an hil zen

*"ZURE irribarre eta samurtasuna
betiko izango dira GURE ARTEAN"*

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Apirilaren 11n banatu zituzten Eibarko AEK-k eta Udal Euskaltegiak, Udalarekin lankidetzan, antolatutako Nanoipuin lehiaketako sariak. Patxi Lejardi, Mikel Arrillaga, Sorkunde Juaristi eta Junkal Txurrukak osatutako epai-mahaiaren saria **Marisa Cid Gibajak** jaso zuen, "Ekaitzak argiak itzali ditu" izenburuko lanarekin eta internet bidez boto gehien (%56) jaso dituen lana, berriz, **Koldo Edorta Carranzak** idatzitako "Txotx" izan da. Lehiaketan 43 nanoipuin aurkeztu dira eta 513 boto jaso dira guztira. Lan guztiak eibarko-euskara.eus helbidean irakur daitezke, baita hemen ere.



nanoipuin lehiaketako irabazleek jaso dute saria

Nanoipuin irabazleak

Ekaitzak argiak itzali ditu

Ekaitzak argiak itzali ditu. Bakardade ilunean hiria zeharkatzen ari naiz beldur barik, ilargiaren eraginez nire itzala nirekin doa eta. Arnasa moztu zait gaur ilberri dagoela konturatu naizenean.

Txotx

2018ko Sagardo Eguna. Udaletxe ondoan ezagutu zintudan. "Txotx" Begiradak, txantxak, musuak. "Bixar arte!" Zure edalontzia oraindik etxean daukat. Ezpainetako gorriaren marka marroitzen hasi da.

Lehiaketako beste Nanoipuinak

Elkarren ondoan eseri ziren. Segundo batzuk aski maitemintzeko. Hitzik ez; begiradak eta irribarrea nahiko. Eskutik helduta, aspaldiko bikotea bailiran atera ziren bagoitik. Ohiko trena galdu izanak betiko batu zituen Ane eta Noa.

Urte luzeak eman zituen bikotekidearen maitasunean preso, baina gurutze-bidea amaitzearen. Ezagutu berri zuen lagunak zabaldu zizkion begiak: maitasuna barik, mendekotasuna zen. Whatsapp bidezko agurra; ez zuen gehiago merezi.

DO, RE, MI entzuteak alaitu egiten zuen; FA, SOL, LA aditzeak dardarizoa eragin. SI notak, berriz, hunkitu. Ukeleleari ateratako soinu horiek barreraino iritsi eta barruak husten ere laguntzen zioten. Osa garri bezain sendagarri.

Bart gauean zuekin ametsetan egin nuen, nagusitan nola koak izango zaretan ikusten zintuztedan. Zein azkar pasaden hamarkada hau! Amatasunak utzitako aztarnak gorpuztean daramatzat eta behin izan nintzenaren arrastorik ez. Nor naiz? Ni neu.

Nik EZ esan nien, Haiek BAI ulertu nahi izan zuten. Nik ASKI DA erregutu nien, Haiek SEGI GOGOR ulertu nahi izan zuten. Haiei ERRUGABE esan zieten, Nik ERRUDUN ulertu nahi izan nuen...ZERRI BASATIAK!!!

Txanogorritxo dut ezizena eta ezin naiz joan amonaren etxera otsoak leku guztietan daudelako. Amonak segurtasun alarma dauka, baina ez larrialdi zerbitzurik, ezta WiFirik ere. Horregatik UPS bitartez bidaliko diot nire maitasuna.

Behin, gau osoa ia lorik egin gabe pasatu nuen, bueltak ematen. Esnatu nintzenean dena hankaz gora zegoen, ebasleak bitxiak lapurtu zizkidan. Hau bai amets gaiztoa!

Ba ziren bi nekazari, beti elkarri irabazi nahian. Apustuak eginenez beti galtzen zuen ahula zenak. Baserria baino ez zeukan eta azken apustuan jokatu zuen. Bere bizitzan lehen aldiz irabazi zuen hartan.

Estatua txikitu nahi izatea leporatzen zaie kataluniarrei. Salatzaileak, aldiz, hitzik partekatu gabe; amen: zu hor eta ni hemen. Aitonak zioen bezalaxe: bururik ez eta txapela nahi.



JAVIER GOROSABEL URKIA

IV. urteurrena: 2015-IV-21

"Zure bizitzak argitu gaitu eta ikasarazi digu lagun hitzaren esanahia aberasten eta kolorez betetzen. Abentura bihurtzen zenuen egunerokoa. Maite zaitugu, Firilo, eta ederra putada joan zarenetik! Mundua aspergarriagoa da zu gabe...."

ZURE LAGUNAK. BETIKO.

Zoriontsu bizi zen, inongo arazorik gabe, dena zoragarria zela pentsatzen zuen. Baina bizitzak ustekabea zeukan beretzat, aitaren heriotza heldu eta bat-batean beste mundu batean zegoela ohartu zen.

Irten zen karakola kalera. Bere karrozeria tailerrean konponetzen zegoenez, baretzat hartu zuten. Zelako negarrak egin zituen. Harrezkero, itxurak bost! Beraz, ez zuen tailer bat zapaldu ere egin.

Udako oporretan, Extremadurako Guadalupe mendikatean geundela, zerutik bola berde erraldoi bat erortzen ikusi genuen. Zerua berde-berde jarri zen. Bengala bat zelakoan, meteoritoa zen.

R. barrura doa, kalean hotzegi. Norbait begira atzean. Burua biratu eta neska, berari so. Mahaira hurbildu eta neskaren oharra: "ez zaitut ezagutzen, maite zaitut". Kafea hoztu da neskaren zain.

S.D. Eibarrek sare sozialetan bideoa argitaratu du Haurren Minbiziaren Egunarengatik. Ostiralean, Ipuruan, ohorezko sarea egin zuen minbizidun ume batek. Bertako batek baino gehiagok negar egin zuen.

Bergaran lanean nenbilela, bezero berezia nuen, ez ahazteko modukoa. Gaztainak nahi eta beti ehun eskatzen zuen. Ez pentsa edozein hartzen zuenik! Ondo aukeratutako ehun politenak hartzen zituen.

Hiru-lau urte nik, aitaren gainean etzanda, zeruan. Jendean hasi zen negarrez. Bertan egon nahi nuen baina izebak laga ez. Aita mimosoa zen. Ez dut haren argazkirik, atorrik... gogorapenak besterik ez.

Behin norbaitek esan zidan: - "Begiak itxi, primeran ikusiko duzu..." - Isildu, ozenago hitz egingo duzu... - Ulertzen? Errealitatek ihesi nenbilela, parezpare ikutu nuen egiaren usaina.

Larunbatero lez, zalditegira goaz. Zaldiak garbitu eta presatuta, gainera igo eta pasiatzera. Pasiara liluragarria da. Atzean arnasa somatzen dugu. Zeren beltz-beltzarena. Trostan desagertzen gara.

Andrezale amorratua zen, baina emandako hitza betetzen zuen. Emazteari zin egin zion betikoz maite izango zuela. Egunsentiak besarkatuta aurkitu zituen. Gorpuak, hotzak.

"Ea noiz goazen Arrateko elizara berriz" Baina utzikeriagatik beste udaberri bat igarotzen zen joan gabe. Barkatu berandutzea ama, eta eskua zabalduz hatzen artetik zure erraustak erortzen uzten ditut Ama Birjiñaren oinetan.

Bazihoan behin ipuin txiki bat ipuin jaioberriari eskuz elkarri. Bide erdian jaioberriari otu zitzaion itauna. Noraino? Ilargiraino. Zergatik? Handia da argia, luzea bidaia. Eta barretxo bat isotu zitzaion jaioberbatiari.

Ohituren katea itsua apurtzean soilik izan nuen aukera inoiz inork altxatu gebeko ke beltzezko hesia gaudituz zentzumenen landara atera, lore pozoietsuen lurrina arnastu eta bizitza maitatzen hasteko.

Gau ilun batean bakarrik noa etxera. Takoi-hotsa, ttipi-ttapa, bihotz taupadekin sinkronizatu dut urduritasuna baretzeko asmoz. Odola izoztu zait zapatilak daramatzadala konturatzean.

Goizero zure berotasunak pizten nau. Harresi guztiak jausten zaizkit laztantzen nauzunean. Zure edertasunak desarmatzen nau. Gurea ez da amodio-historia, pasio-istorioa baizik. Sinadura, Ekilore

Handik mende askotara etorri zirenek aztarna bakarrak topatu zituzten lurlean erdi ezkutatuta: bola bat zerura jaurtitzeko giza figura, eta EIBAR FT inskripzio enigmatikoa; eta hala eramane zuten bere planetara mundu ezezagun haren oroigarritzat.

Urrunago joan nahi nuen, baina geldiarazi egiten ninduten: "kontuz, hortik ez". Urteak aurrera, libre naiz mundua trabarik gabe esploratzeko. Lastima gurasoak hemen ez egotea, ez nengokeen hiltzeko zorian amildegitik erortzen.

Nire alaba Coliseora joan zen magia-ikuskizun batera. Magoaren txapeletik unxi bat agertu zen, eta ihes egin zuen. Magoak ezin zuen unxia harrapatu. Azkenean, denak barrez leheritzen, unxia harrapatzen.

Esaten zenuen maitasunagatik ematen zenidala masailekoa, maitasunagatik heltzen lepotik, bultzatzen lurrera, jotzen ostiko, egiten iseka. Ez baneki bezala zein hitz ederrak diren arnasa, eskutik, aurrera, larrua eta irribarre.

Txikitan maniatikoa nintzela, behin eta berriz garbitzen nituen eskuak. Amak errieta egiten zidan Afrikan ez zuten ura xahutzen nuelako. Orain bertan bizi naiz boluntario, eta oraindik ezin izan dut nire kontzientzia zuria garbitu.

Eskailera mekanikoetan igo naiz. Inor ez da itzuli goitik. Egin behar dut. Bizitza atzean utzi. Amaieran ate bat dago. Ireki egin da. Eta orduan pentsatu dut: "Egongo al da San Blas opilik beste aldean?"

Behin joan nintzen mendira. Ikusi nuen zuhaitz bat, ederra, sagarrekin. Hartu nuen bat jateko, eta belar artean lore bat ikusi nuen. Sagar-mutxikina lurrera bota nuen. Ea ba!

Nire amama orain dela aste bat azokara joan zen eta handik txori bat ekarri zuen. Zuek pentsatuko duzue nahi duzue, baina txoriak eta nik eguneroko hitz egiten dugu. Batzuetan, euskaraz, eta beste batzuetan, txioka.

Teoria absurdoa zeukan: Egunkariak Errealeko zale gazte eta lerdenen argazkiak ekartzen zituela, eta Eibarkoen artean zale, lodi, zarpail edo zatarrak besterik ez. Horregatik, gure argazkia atera zutenean, zer pentsatua eman zidan.



Bala zulotik pasa zen. A ze kontraesana! Bete betean asmatu du, baina itua gure laguna zen. Jolastea baino ez genuen nahi. Kargatuta zegoen. Nork uzten du eskopeta ume baten eskura? Amesgaiztoa hasten da.

Gogoan izan esaldi hau: 8 urte 200 karakteretan hilko da. Jolasten aurkitu genuen. A ze ilusio! Ezkutatu eta tiro egingo dizut. Horrela 200 metro distantzia izan zen eta 8 hil bitarteko segundoak.

Berbetan. - Zer zabilta? - Bihotz taupadak entzuten. - Zureak? - Ez! Kar, kar, kar! Nik ez dut bihotzik. - Orduan, norena? - Edonorena, noski! - Zergatik? - Nora joan behar dudan jakiteko. - Nor zara ba? - Heriotza.

Bi lagun kafea hartzen ari ziren tabernan, eta zer egiten zuten erretiratu ondoren kontatzen ari ziren. Batek mandatuak egiten zituela, besteak, Joxepe arabek ikasten zuela. Lagunak zaila zela esan zuen. Ez, erraza da, ARABE aquí, ARABE allá... je!!

Oporretan Sardinian egon nintzen. Hiri batean kotxea galdu genuen. Carabinieriak topatzean "gure italiaraz" arazoa azaldu genien. Google-mapekin kotxea aurkitu eta patruila-autoan eramantzen gintuzten.

Aspaldi nire lagunak eskua ebaki zuen. Odoletan hasi zen, eten barik. Horrela, ospitalera joan ginen. Denbora luzea egin zuen. Azkenean irten zen mormia bezala. Hain larria izan da? Ez, artaziak ez dituzte topatu, horregatik benda guztia lotu dinate.

Txikitan Kalamuara joaten ginen eta gure osabak pezeta bana ematen zigun euskaraz egiten bagenuen. Gogoratzen dut han esaten zigula: "Euskal Herri nirea ezin dut maite, baina non biziko naiz zuek aparate"



JABIER MUGURUZA
(musikaria)

“Beste testura batzuei leihoa zabaltzeak azken emaitza aberastu du”

Jabier Muguruzak, bere musikaren leuntasuna albo batean utzi barik, beste esparru batzuk zeharkatu ditu soinu berrien bila. Ander Mujikaren eta Javi “Carasueño”-ren laguntzarekin ‘Leiho bat zabalik’ diskoa sortu du, eta Mujika gitarra-jole elgoibartarrarekin zuzenean izango da maiatzaren 3an 20:30ean Coliseoan.

- ‘Leiho bat zabalik’ diskoan konfort-gunetik irten zarela aipatu izan duzu. Zer aurkitu duzu hortik kanpo?

Lehenik eta behin, apustuak merezi izan duela. Beste lurralde batzuk esploratu ditut, Ander Mujika eta Javi “Carasueño”-ren laguntzaz, eta benetan esperientzia ederra izan da. Aurreko diskoen leuntasunari uko egin gabe, beste testura batzuei leihoa zabaltzeak azken emaitza aberastu duelakoan nago.

- Espero zenuen emaitza lortu duzu? Nolakoa da? Pozik zaude?

Bai, pozik nago. Batetik, ausartu naiz egin nahi nuena egiten, eta hori ez da gutxi, izaten ditugun barne-erresistentziak kontuan harturik. Gainera, emaitzarekin gustora geratuz gero, zer gehiago eskatuko duzu? Horri gehitu behar zaio nire lankideak ere oso gustora geratu direla obrarekin, eta eskertzekoa da honelako prozesu kolektiboetan ‘ekipo’ osoa pozik egotea.

- Zergatik hartu zenuen arriskatzeko erabakia?

Beti nabil neure buruari galderak egiten, etengabeko hausnarketan (musika kontuez eta bestela), eta une jakin batean

sentitu nuen (intuizioa izan nuen) behar nuela aurreko soinutik pixka bat aldendu eta beste zerbait bilatu. Uste dut egileari jarri hori dagokiola, ordura arte lortu duenarekin konforme ez gelditzearena.

- Ander Mujikarekin jardungo duzu zuzenean. Nola moldatzen zarete elkarrekin?

Nik esango nuke ederki moldatzen garela, baina berari ere galdetu beharko genioke. Uste dut hasiera-hasieratik primeran ulertu zuela transmititu nahi izan nion kezka, soinu-kontzeptuari buruz (gordinxeagoa, lakarragoa), eta horren arabera gotik lan egin zuen, diskorako giro oso bereziak sortuz.

- Zuk lantzen duzun musika nahiko intimoa dela esan daiteke. Eibarren ikusiko dugun zuzeneko ere horrelakoa izango da?

Bai, bai... horixe da niri gehien interesatzen zaidana, gehien betetzen nauena. Bueno, eta zuzenekoetan lortzen bada (hori da erronka pertsonala) publikoari zuzentzea ez jende-multzo bati bezala, baizik eta ikusleak banan-banan hartuta, giroa eta emaitza magikoak izan daitezke. Ea Eibarren lortzen dugun.

Egunean hasiko da Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketarako egitaraua



Maiatzaren 2an hasiko dira XXXV. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren emanaldiak, Dramagia konpainiaren eskutik eskainiko den “Mister Blancoren Misterioak” antzerki-magia ikuskizunarekin.

David Blanco arabarraren ikuskizuna euskeraz izango da eta Urkizuko parkean ipiniko duten karpa batean izango da. Hurrengo egunean ikuskizun bera eskainiko du, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat, baina Ego Gain kalean (Zugastiren eskulturaren aldamenean). Saioak 30 minutuko iraupena izango du, guztira lau emankizun izango dira eta horietako bakoitzean gehienez 40 ikuslerentzat tokia egongo da. Egun berean Eibar BHI-ko ikasleek “Beldurra”, Andrea Covadonga eibartarrak zuzendutako lana aurkeztuko dute 11:00etan eta 12:30ean (dohainik) eta 20:00etan (5 euro), Coliseoan.



Eibar BHI-ko ikasleek “Beldurra” aurkeztuko dute maiatzaren 2an.



“Edurnezuriren ipuin berria” Zapatuko Ipuinean

Bihar 18:00etan Leire Zinkunegiren eskutik “Edurnezuriren ipuin berria” izenburuko saioa hartuko du umeen liburutegiak, Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan. Antolatzaileek aurreratu dutenaren arabera, “gizartean gorputz perfektuaren mezua oso errotua dugu. Edertasun ereduak asko baldintzatzen dute emakumeok gure gorputzarekiko dugun jarrera. Era berean, gure gorputzarekiko dugun jarrerak baldintzatzen du gainontzekoekin harremanak izateko modua. Hori dela eta, ipuina entzutearen gozamenaz eredu berriak elkarbanatzeko eta norbera garenaren edertasun anitzaz jabetzeko parada egiteko gonbidapena da hau”.



“Opil eta muxilen binetak” komikiaren aurkezpena

Gehitu Elkarteak egindako ‘Opil eta muxilen binetak. Komiki lesbikoak’ komikia aurkeztuko du Andretxeak maiatzaren 23an, eguena, 19:00etan Portaleko ikastaro-gela. Euskaraz eta gaztelarazko komiki korala da, eta Espainia eta Latinoamerikako emakume lesbienek egindako hamar istorio batzen ditu.



La Salleko arte erakusketa zabalduko dute Untzagan

Azitaingo La Salle ikastetxean Arte Batxilergoa ikasten duten ikasleek astelehenean zabalduko dute erakusketa Untzagako jubilatutxan. Adierazi dutenez, “erakusketak lan aukera handia jasotzen du, estilo eta gai ezberdinetan. Izan ere, bertan ikasleen egunerokoa azalduko da”. Maiatzaren 5era arte egongo da ikustera joateko aukera, astelehenetik barixakura, 19:15etatik 21:15etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



‘Oporrak Afariketan’ eta ‘Udan Jolasean’

Apirilaren 29tik maiatzaren 8ra bitartean “Oporrak afariketan” eta “Udan jolasean” udaleku irekietan parte hartzeko izen-emate epea zabalduko da. ‘Udan jolasean’ programan 5 urteko hartu ahal izango dute parte, hau da, 2013. urtean jaiotako haurrek. ‘Oporrak afariketan’ programa, aldiz, lehen hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara arteko haurrei zuzentzen zaie.

Zinerik ez asteburuan

Asteburu honetan ez da zine emanaldirik egongo, Coliseoa hauteslekua izango delako domekako hauteskundeetan. Beraz, hurrengo zine emanaldia maiatzaren 4an egingo da.



Hasi dira umeen danborradarako entseguak

Aurtengo San Juan jaietan egingo den umeen danborradan parte hartu nahi dutenentzat lehen entsegu aste honetan, eguaztenean egin dute, 19:00etan, Bittor Sarasketa kaleko 7. zenbakian (Beistegi eraikinean) Udalak duen lokalean. Bigarren entsegu, berriz, bi aste barru egingo dute, toki eta ordu berean. Eta nagusien danborradarako lehen entsegu maiatzaren 8an egingo da, toki berean, baina arratsaldeko 20:00etan. Antolatzaileek nagusien danborradan parte hartu nahi dutenei lehen entsegura joateko deia egin nahi diete.

Musika eta robotikarekin Iturburun gozaten

Aste Santua baino lehen, Juan Antonio Mogealeko ikasleak gogor ibili dira lanean. Batetik, eta "oporretara gozo gustuarekin joateko", Northern Harmony taldeko abeslariak Iturburura bisitan joan ziren, bezperan Coliseoan emanaldia eskaini eta gero. Ikaste-



txetik azaldu digutenez, "haien abestiez gain, gure ikasleek ere euren ekarpena egin dute, ikastolan ikasitako abestiek. Amaitzeko, hainbat abesti elkarrekin abestu genituen. Saio bikaina eta hunkigarria benetan". Eta Iturburuko 5. mailako ikasleek hiruhilekoa primeran agurtu zuten, hiru egunetan robotika ikastaroa egiten. Azken egunean, gainera, txapelketa-erakusketa egin zuten.




Gipuzkoan Gazte Tour egitasmo berria maiatzaren 4an

Maiatzaren 4an, goizeko 11:30etatik aurrera, Bambo Donostia taldearen dantza master-classa egingo da, dohainik, Ipurua Kiroldegian. Izen-ematea Pegoran, Herritarren zerbitzurako bulegoan egin beharko da, aldeaz aurretik. Eta arratsaldeko 19:00etatik aurrera, musikarentzat tartea izango da Andrea Garcia eibartarraren eta David Oteroren eskutik, Coliseo Antzokian. Sarre-ak 5 euro balio du eta Kutxabanken eta Coliseoko leihatilan, ohiko ordutegian, eros daitezke.

Aquariumera txangoa antolatu dute

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek Donostiako Aquariumean lo egiteko aukera paregabea izango dute, Udaleko Haurreria eta Gazteria sailak antolatuta maiatzaren 17an eta 18an egingo den irteerari esker. Antolatzaileek azaldu dutenez, "arrainekin lo egiteaz gain, Tabakalera ikusiko dugu eta, ondoren, Zarautzera joango gara bazkaltzera". Txan- gora joateko aurrematri- kula egin beharko da, apirilaren 29tik maiatzaren 6ra bitartean (biak barne), www.astixa.eus webgunean (hori da modu bakarra). Prezioa 30 eurokoa da. Behin betiko matrikula eta bilera informatiboa, berriz, maiatzaren 15ean egingo dira, 17:30ean, India- nokua gaztelekuan.



Esther Galarzaren "Urdina beltzez" erakusketa ikus daiteke Donostian

Apirilaren 12az geroztik martxan dago "Urdina beltzez", Esther Galarza artista eibartarraren erakusketa Donostiako Aquariumean, Nautilus aretoan. Jendeak ingurumena eta itsasoa zaintzeak duen garrantziaz jabetzea bilatzen duen erakusketa Galarzak zeramikaz landutako 40 pieza eta formato handiko zortzi akuarela biltzen ditu. Erakusketa maiatzaren 26ra arte egongo da ikusgai.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea



Dantzaldi irekia
ELGETAKO Espaloian

Domekan "Herrixa Dantzan" dantzaldi irekia izango da Elgetako Espaloia kafe-antzokian, 19:00etan hasita. Christian Pacher-ek musika zuzenean eskainiko du eta sarrera doan izango da. Frantziako Poitou eskualdetik datorren musikariak folk dantzaldietako ohiko dantzak eskainiko ditu (borobila, chapelloise, baltsak, polkak, schottisch-ak, mazurkak...), bere eskualdeko dantzeekin batera (adibidez, Avant Deux esaten zaien kontradantza edo kadrileak).



Erdi Aroko Azoka
ERMUAN

Asteburu honetan, barixakutik domekara, Erdi Aroko azoka egongo da Ermuko Orbe kardenalaren plazan. Gaztela-Leongo Kultur Etxeak antolatuta; goizez eta arratsaldez egongo da azoka bisitatzeko aukera. Aurtengoa 9. edizioa izango da eta, aurrekoetan bezala, ekitaldi ugari osatuko dute egitaraua (kale antzerkia, kalejirak, ipuin kontalariak, dantzak, musika...).

hildakoak

- Angelita Txurruka Uzuriaga. 91 urte. 2019-IV-11.
- Bernabe Zumeta Artetxe. 88 urte. 2019-IV-13.
- Gregoria Diez Diez. 89 urte. 2019-IV-13.
- Javier Larreategi Lenisoro. 65 urte. 2019-IV-16.
- Fernando Sagastagutxia Lekunberri. 75 urte. 2019-IV-18.
- Dario Gonzalez Tirados. 86 urte. 2019-IV-18.
- Elisabete Garaizabal Isasti. 85 urte. 2019-IV-20.
- Alicia Anabitarte Egia. 67 urte. 2019-IV-22.

jaiotakoak

- Jare Osoro Blanco. 2019-IV-10.
- Nahia Uribe Elexpuru. 2019-IV-10.
- Aiur Barrutia Kortabarria. 2019-IV-11.
- Ainhoa Correa Restrepo. 2019-IV-11.
- Gorka Moya Anaya. 2019-IV-11.

farmaziak

- Barixakua 26
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 27
 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 28
 EGUNEZ Mendiñeta (Urkizu, 6)
- Astelehena 29
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 30
 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguaztena 1
 EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Eguena 2
 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 3
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

8	5	1	6	2	3	9	4	7
2	7	3	9	8	4	5	1	6
6	9	4	1	7	5	8	2	3
9	1	6	5	3	8	4	7	2
7	4	8	2	6	1	3	5	9
3	2	5	4	9	7	1	6	8
5	8	9	7	1	2	6	3	4
1	6	2	3	4	9	7	8	5
4	3	7	8	5	6	2	9	1

	3			2			8	
		9						7
5	8		3				9	6
	6							2
		5		8		9		
1							6	
8	4			2		3	9	
3						8		
	5			7			2	

telefono
jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiaki.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 26**LIBRE EGUNA**

19:00. Eibarko Komite Antinuklearraren erakusketaren irekiera, garaiko argazki eta materialarekin.

19:15. Eibarko Komite Antinuklearraren hitzaldia, kide ohien eskutik. Kultur.

Zapatua 27**TATUAJEAK**

10:00/20:00. "Los tatuajes marcan la diferencia" tatuaje solidarioen inguruko ekitaldia. Astelena frontoian.

LIBRE EGUNA

16:30. G7 Ez plataformaren hitzaldia. Kultur.

19:00. Poteoa, Aldats elektrotxarangarekin, Untzagatik hasita.

22:00. Itziarren Semeak, Bad Sound eta Sista Kata taldeen kontzertua. 5 euro. Gaztetxean.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Edurnezuriren ipuin berria", Leire Zinkunegiren eskutik. Umeen liburutegian.

ZINEA

18:00. "Campeones" (Zuz: Javier Fesser). Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

SANTA KURUTZ JAIK

19:00. Trikipoteoa, Untzagan hasita.

21:00. Bertso-afaria. Onintza Enbeita eta Nerea Ibarzabalekin. Ixua jatetxean.

**KONTZERTUA**

23:30. Ezpalak. Ez Dok tabernan.

Astelehena 29**IKASTEN**

10:30. Antzerkia. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

BATUKADA FEMINISTA

18:30/20:30. Eibarko Batukada Feministaren entsegu irekia. Untzagan.

**Martitzena 30****IKASTEN**

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

Eguena 2**IKASTEN**

10:00. "Elikadura" hitzaldia, Silvana Huegunen eskutik. Armeria Eskolan.


ANTZERKIA

11:00/12:30. "Beldurra" (Eibar BHI). XXXV. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Sarrera: goizez doan, **20:00etan** 5 euro. Coliseoan.
"Mister Blancoren Misterioak" (Dramagia konpainia). Goiz eta arratsalde (4 emankizun). Urkizuko parkean.

**KALEETAN KANTUZ**

18:00. Dantzak. Untzagako jubilatuta etxean.

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

**Erakusketak****Apirilaren 28ra arte:**

- "EIBAR BHI - ADIN TXIKI, ARTISTA HANDI" (Portalea)
- EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA (Portalea)

Apirilaren 30era arte:

- JOAN SERRANOREN ARGAZKIAK (Klub Deportiboa)
- JOSE VILAREN "SAN FRANCISCO" ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)
- JOSE LUIS IRIGOIENEN "BARTZELONA" ARGAZKIAK (El Ambigú)

Apirilaren 29tik maiatzaren 5era arte:

- LA SALLE AZITAINGO ARTE BATXILERGOKO IKASLEAK (Untzagako Jubilatuta Etxea)

Ekainaren 2ra arte:

- "EIBARKO INDUSTRIA-SAREAREN BERRERAIKUNTZA 1938-1942" (Eibarko Armagintza Museoa)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, AINHIZE Egurrola Mugerza, atzo 11 urte bete zenuzuen-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LUCIA!!, 2 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MARKEL!!! Hillaren 21ian 9urte bete zenuzuen-eta. Besarkada haundi bat familixaren eta, batez be, Telmoren partez!




Zorionak, OIHENART, hillaren 18xan 8 urte egin zenuzuen-eta. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta Aioraren partez.



Zorionak, URKO, gaur 5 urte egittten dozuz-eta. Segi holan, txapeldun! Musu haundi bat Anerren partez.



Zorionak, IBAI, gaur 8 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak OSKAR (20xan) eta NAHIA (22xan, 10 urte), urtiak bete dozuezelako. Musu haundi bana famelixa eta laguneren partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Urki auzoan. Gazteendako edo biltegi moduan erabiltzeko. 140 m². Margotu berria. Prezio onean. Tel. 643-298749 eta 639-540641.
– Txirula taberna alokatzen da Ipuruia inguruan. Tel. 630-644175.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 602-360043.
– Mutila eskaintzen da gidari jarduteko, baserri-lanak egiteko eta pintore moduan. Tel. 612-220276.
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 643-961051.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko egunero bi ordu. Tel. 617-571210.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ikastaroa egindako ziurtagiria. Ordutegi malgua. Tel. 605-402030.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 689-571882 eta 666-197831.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-923543.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-571335.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-303155.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-360043.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 698-571054.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 617-759693.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 602-173487.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordutegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 698-733356.
– Emakumezkoa eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 688-714388.
– Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-988471.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-298749 eta 611-058487. Jocelyn.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ziurtagiriarekin. Tel. 697-730662.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 630-566556.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-881161.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-779050.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-950442.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-398328.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-933039.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 650-537823.
– Gizonezkoa eskaintzen da tailerlean lan egiteko fresadore moduan (ikastaroa egin da) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688-877998.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 643-324471.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Orduka. Tel. 631-956574.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 655-094780.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gerontologikoan lan egiteko ziurtagiriarekin. Tel. 632-644860.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-206409.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-013032.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-158176.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-680410.
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lane-tarako. Tel. 631-680410.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 631-950442.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-503689.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-466286. Leonardo.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 643-932943.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 602-829409.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: elkateak, pegorak, etxeak. Autonomia. Tel. 631-790555.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-975260.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserri-lanak egiteko eta banatzaile moduan. Tel. 631-402535.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-456295.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 600-667606.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-292690.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-098382.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 631-199421.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-891484.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da taberna batean. Tel. 695-690784.
– Sukaldaria behar dute Ixua jatetxean. Autoa izatea beharrezkoa da. Tel. 699-953003.
– Fisioterapeuta behar da Eibarko zentru pribatu baterako. Bidali curriculum: eider mugica@hotmail.com
– Zerbizaria behar da Arrateko Tiro Pitxoian asteburuetarako. Bidali curriculum: vcorada@gmail.com
– Sukaldari, garbitzaile eta kamareroa behar dute jatetxe batean. Tel. 659-539861.
– Ileaipaindegi-laguntzailea behar da asteburu eta oporretarako. Tel. 619-928881.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskeraerak

– Japoniar irakaslea behar da 0 mailatik hasteko. Tel. 665-708193.

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Selektibitateko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Goiz eta arratsalde. Tel. 685-739709.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
– Akordeoi handia salgai. Modelo zaharra. Tel. 605-711422.

6.2. Eman

– Musika-ekipoa eta osagarriak oparitzen dira. Tel. 685-758326.
– 9 asteko txakurkumea oparitzen da, bere osagarri guztiarekin. Lehengo txertoa jasota. Tel. 626-249512.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Batxilergorako aurrematrikula: maiatzaren 2tik 14ra

Ate irekiak: maiatzaren 2an, 18:00etan



Jardifeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

ATE IREKIAK EIBARKO ORBEA HAURRESKOLAN

APIRILAK 29, arratsaldean 17:30-19:30

ETORRI ETA EZAGUTU GURE
HAURRESKOLA!!!

**MATRIKULAZIO
EPEA:
Maiatzaren
2tik 10era**

**MUGIMENDU
LIBREA**

**HAURREN
ERRITMOAK
ERRESPECTATUZ**

Bittor Sarasketa , 11
orbea.eibar@haurreskolak.eus
943200384



eibar ko **La Salle** **azitain**

artezkoa giza eta gizarte zientzietakoa zientzietakoa



aurrematrikula zabalik
maiatzaren 2tik 14ra

La
Salle
Eibar

www.lasalleibar.com

[emaila: azitain@lasalle.es](mailto:azitain@lasalle.es)

Tel: 943 121 698